

OMENALDIA

Gaurkoan omenaldia egin nahi dizut gizartea gizarte denetik bere euskarri izanda, kultura eta erlijio guztietan praktikatzen den sexu diskriminazio amaigabearen biktima zaren horri. Gerra eta gerrilla guztietan erretagoardia isila osatu duzu, ama goiztiarra bihurtutako alaba zaharrenaren laguntza bakarrarekin familiari eta herriari eutsiz. Etxeko buru argiena izan arren eta etxean gertatzen zen guztiaren jakitun izan arren beti atzean, bigarren planoan, inork aintzat ez hartzeko moduan mantendu zara, isilik baina tinko. Eskerrak zuri, andere.

Gizarte arau eta aurreiritzi gogorrei kontra eginez unibertsite ikasketak egin, etxetik kanpora gizonei baino gutxiago ordaindutako lana egin, nork bere gorputzari buruz erabakitzeko duen eskubidea zorrotz defenditu eta ejerzitu (eta pilulez kutsatu), haurrak askatasun ingurune berri batean hezten saiatu eta etxeko lanetarako inutila omen den senarraren amarena ere egiten segitu behar izan duzu, sarritan. Eskerrak zuri, andere.

Edo gizonarengandik hazia bakarrik behar duzula jabetu eta deliberatuki bihurtu zara ama soltera. Edo zure maiteak ere ama izan nahi eta haurra adoptatzea erabaki duzu eta ezkontzea, ezkontza bere ere gizartearen moral dominantearen kontrako aldarri bihurtuz, pentsa! Eta guzti hau mendebaldeko gure herrialde “zibilizatuotan”, ekialdeko hainbat herritan jaungoikoak gehiago direlako edo goikoagoak direlako -batek daki- piztien pareko tratua ematen baitizute, edo zapiaren azpian ongi gordeta mantendu behar den erreproduzitzeko makina hutsarena. Horregatik, omenaldia egin nahi dizut gaurkoan, aitaren eta semearen eta izpiritu santuaren laguntzarik izan ez duzun ama ez-birjin horri. Eskerrak zuri, andere.